


ZEGAMAKO GAZTELEKUAN FEMINISMOA LANTZEKO PROPOSAMENA

ZEGAMA 2022



SARRERA

Herri feminista bat martxan jartzea ez da lan erraza izaten, sarritan neurri eta lanketa puntualetan erortzen garelako, eta garrantzizkoak diren arren, luzera begirako perspektiba falta izaten dute. Oinarrira joango den eta eraldaketa bat suposatuko duen lan bat egin nahi badugu, ezinbestekoa izango da lehenik eta behin eraldaketarako klabe eta subjektu izango direnak identifikatzea. Azken ideia hau azpimarratzen ezinbestekoa iruditzen zaigu, herri bat feminista izango delako, baldin eta bertan bizi direnak ere feministak diren. Azken ideia horri tiraka beraz, xede taldea gaztelekuaren baitan dabilzan herriko gazteak izango dira, haiekin lanketa bat abitu eta, ohera, haiek, eraldaketarako subjektu bilakatu ahal izateko.

HELBURUAK

- Zegamako gazteak feminismora hurbiltzen hastea.
- Indarkeria matxistaren inguruko kontzientzia sortzea.
- Gazteak herrian eraldaketarako subjektu bilakatzen hastea.
- Feminismoa herriko gazteen problematizetatik lantzea.
- Feminismoa eta aisialdia uztartzea.

EDUKIAK

Ondorengo hauek dira gazteekin lantzen ditugun edukiak:

Guztiekin lantzekoak:

- *Zer da indarkeria matxista? Nola eragiten digu?*
- *Emakume eta gizonezko eredu estandarrak auzitan jartzea.*
- *Gorputz eta edertasun kanonak .*
- *Maitasun erromantikoa.*
- *Musika eta Matxismoa*
- *Piropoak eta eguneroko biolentziak.*
- *Praktika afektibosexualen oinarri sexistak.*
- *Homofobia gure praktiketan.*
- *Mitoak deseraikitzen.*
- *Sare sozialak eta indarkeria matxista.*

- Reggaetoiarekin zer?
- Sare sozialen potentzial eraldatzailea.
- Beste eredu batzuk lantzen.

Neskekin lantzen diren edukiak:

- Egunerokotasuneko erasoen identifikazioa.
- Beldurra eta bortxaketaren kultura.
- Ahizpatasuna eta emakumezkoan sinesgarritasuna.
- Autodefentsa feminista alternatiba moduan, horren beharra lantzea.

Mutilekin lantzen den edukia:

- Genero rolen eraikuntza.
- Feminismoaren oinarriak eta heteroaraua.
- Indarkeria eta erasoetan gizonak duten ardura.
- Pornografiaren ergina bortxaketaren kulturaren.
- Desboteretze prozesua zer da?
- Gizonak eta feminismoa.

**Eduki hauek egingo dugun lanaren oinarri eta ildoak besterik ez dira, honek ez du esan nahi horrela landu, antolatu edota explizitatuko ditugunik.*

METODOLOGIA

Aurretik aipatu bezala, xede taldea gaztelekuan parte hartzen duten gazteak izango dira, lau taldeetan banatuko direnak adinaren arabera. Talde bakoitzak bi saio jasoko ditu, ostiraletan lehentasunez.

Aurretik aipatu ditugun eduki horiek modu transbertsanean lantzea da helburua. Ez dugu eduki horren lanketa modu zurrun edo teoriko batean soilik egingo, eta horietako batzuk hala izango diren arren, garrantzitsua iruditzen zaigu eduki horiek **aisialdiaren bitartez lantzea**, edo bestelako eredu metodologiko informalagoen arabera behintzat. Horregatik, haiekin lehen saio egin ondoren aurreikusiko dugu zein forma izango duten saioek, haiekin batera zehaztu ahal izateko, edo haiek interesak ezagututa behintzat diseinu erreal eta dinamikoago bat egin ahal izateko.

EGUTEGI PROPOSAMENA

TALDEA	Martxoak 25	Apirilak 1	Apirilak 11	Apirilak 12
DBH 1. T	1.Saioa -16:00-18:00		2.Saioa – 16:00-18:00	
DBH2.T	1.Saioa –18:00-20:00		2.Saioa – 18:00-20:00	
DBH3.T		1.Saioa –16:00-18:00		2. Saioa-10:00-12:00
DBH4+Batxi T.		1.Saioa –18:00-20:00		2. Saioa-12:00-14:00